

ESKOLA-BARATZEKO LANTEGIAK



Jarduera baratzean	
Hezkuntza-etapa	Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak
Ikasgelan aurretik egiteko jarduera (hautazkoa)	Ontziak prestatuko ditugu, bertan hazitegiak egiteko
Gidatutako jarduera baratzean barna	Landareak ezagutzen baratzearen bidez
Ikasgelan, ondoren egiteko jarduera	Hazitegien jarraipena, ikasgelan

Landareak ezagutzen baratzearen bidez

Helburuak

- Harremanetan jartzea kontsumitzen ditugun elikagai batzuk eta horiek ekoizteko tokiak eta erak.
- Landareen parteen morfologia eta funtzioak ezagutzea.
- Landare-erreproduktziora hurbiltzea.

Iraupena

Aldez aurretiko jarduera ikasgelan (hautazkoa): 1 h

Lantegiaren garapena 2 h

Ikasgelan ondoren egiteko jarduera (hautazkoa): 10 minutu, astean 3 aldiz jarraipena egiteko eta 1 h bateratzeko.

Garapena

Aldez aurretiko jarduera ikasgelan (hautazkoa)

Ontziak prestatuko ditugu, bertan hazitegiak egiteko

Ontziak prestatuko ditugu berrerabiltzeko materiala (jogurt-ontziak...) baliatuta, haiekin hazitegiak egiteko.

Honela eginen dugu: ontzien oinarria zulatuko dugu, drainatzea errazteko hazitegiak ureztatzen ditugun unean.

Ontziak apaintzen ahal ditugu marraztutako eta ontzien inguruan itsatsitako paper batekin.

Materialak:

- Jogurt-ontzi berrerabiliak.
 - Puntzoiak.
 - Paperak.
 - Pinturak.
 - Zelofana.
-

Iritsiera eta aurkezpena

Baratzean toki egoki bat aurkitu, biribilean eseri eta galdera irekiak botako ditugu taldeka, lantegiari sarrera egiteko.

Non gaude? Zer egiten da hemen?

Laburki, tokiaren eta jardueraren berri emanen dugu eta gunea nola zainduko dugun azalduko dugu. Adibidez, ez dugu landaririk erauziko, ez eltxorik hilko.

Orduan, bakoitzak bere izena esanen du eta bere barazkirik gogokoena aukeratuko. Galderaren bat bota dezakegu: ***Nolakoa da? Zein atal jaten dugu?***

Hastapen-ipuina

Ipuin bat kontatuko dugu, baratzearen munduan murgiltzen hasteko.

Izenburu bat proposatu dugu Baliabide gehigarrien atalaren **I. Eranskinean**.

Zer aurkituko dugu baratzean?

Esan dugu jada baratze honetan jaten ditugun ortuariak landatzen direla. Goazen hobeki ezagutzera.

Horretarako, ZIZARE bihurtuko gara elkarri eskutik helduta. Zizarea, baratzeke lurzoruan bizi den animalietako bat dugu.

Horrela, bada, eskutik helduta baratzean barna ibiliko gara eta aipatuko dugu zer ikusten dugun: laboreak eta beste elementu batzuk, hala nola loreak, arbolak, konpostatzeko tokia etab.

Bide batez, hurrengo jarduera non egin behar eta harra mugituko gara.

Hiru geldialdi eginen ditugu, erraz ezagutzen ahal diren laboreak ukitu, usaindu eta identifikatzeko. Adibidez, urazak, porruak izpilikua... Galderen bidez, landareak hobeki ezagutuko ditugu: ***Ba al dakizue zer ortuari den hau?, ezagutzen al duzue?, jaten al duzue?, landarearen zer atal jaten dugu kasu honetan?***

Ikusi-makusi

Jolas bat eginen dugu, ikusmenaz besteko zentzumenez baliatuta asmatzeko zer ortuari landatzen diren baratzean; hortaz, begiak estalita eginen dugu jarduera. Baten bat ez bada seguru sentitzen begiak estalita, ez dugu behartuko jarduera egitera. Begiak itxita edukitzeko, proposatzen ahal zaio.

Komeni da baratzean une horretan landatuta dauden ortuariak aukeratzea eta testurak zein zaporeak txandakatzea. Frutaren bat edo beste ere erabil daiteke, hala nola marrubiak. Elikagaiak dastatzerakoan, kontuan hartuko ditugu ikasleek eduki ditzaketan alergiak edo kultura zein erlijioak ezartzen dizkien mugak.

Jarduera lurrean biribilean eserita eginen dugu. Haurrak isilik egonen dira gure jarraibideei adi.

Bi heldu laguntzaile izanez gero, bi talde egiteak dinamika azkartuko du, taldeak txikiagoak izanen direlako eta jarduera aldi berean egiten ahalko dutelako.

Lehenengo eta behin, musu-mozorroak edo zapiak banatuko ditugu eta ikasleei horiek jartzen lagunduko diegu.

Hasteko, ortuari puska bat hurbilduko diegu usain dezaten.

Gero, esanen diegu esku-ahurra gorantz dutela aurreratzeko esku bat, eta lehendabiziko ortuariaren puskatxo bat jarriko diegu. Ukitu egingen dute, bi eskuekin, eta azkenik, dastatuko dute.

Ez dute esanen zer ortuari den amaiera arte. Begien estalkia kenduko dute, eta galdetuko diegu:

Ba al dakigu zer den?, Nola asmatu dugu?: usainduz, ukituz, dastatuz?, gustatu zaigu?, etxean jan ohi dugu?

Ortuaria osorik erakutsiko diegu, zatikatu gabe.

Zer atal jaten dugu?

Jarduera bera errepikatuko dugu hiruzpalau ortuari edo frutekin.

Ikusi-makusi...

Jolas honetan, labore batzuen bilaketa egingen dugu baratzean barna.

Aurreko jardueran dastatu ditugunak bilatuko ditugu. Horrela, harremanetan jarriko ditugu kontsumitzen ditugun elikagaiak eta horiek ekoizteko erak.

Hartara, landare bat deskribatuko dugu. Adibidez: *Ikusi-makusi landare luzexka bat, hosto berde zapaletakoa eta zurtoin zurikoa, haren zurtoina eta hostoak jaten ditugu eta zapore mikatz samarra dute... (porrua).*

Pista bakoitza entzunda, landarea dagoen tokira joan, hura ukitu eta elkargunera itzuliko dira.

Landarearen atalak

Jarduera hau tartekatuko dugu, landareen morfologia mugimenduaren bidez ezagutzen hasteko.

Sarrera gisara, erauzitako landare oso bat erakutsiko diegu eta haren atalak zein diren esanen dugu. Bidenabar, laburki, atalen funtzioak azaltzen ahal ditugu:

Sustraiek ura eta mantenugaiak xurgatzen dituzte, landareari eusteaz gain.

Zurtoinek sustraia dute abiapuntu. Haietan barna zirkulatzen dute mantenugaiak eta haietan hazten dira hostoak, loreak eta fruituak.

Hostoetan sortzen dute landareek elikagaia eta haien bidez arnas hartzen dute.

Loreak arduratzen dira landareen ugalketaz. Izan ere, fruituak eta haziak sortzen dituzte.

Jarraian, baratzeako iratxo bihurtuko gara eta pandero baten musikaren erritmoraren dantzan hasiko gara.

Musika gelditzean, landarearen atal bat aipatuko dugu (SUSTRAIA, ZURTOINA, HOSTOAK ETA LOREA) eta denok atal hori bihurtuko gara.

Atal bakoitza zenbait aldiz errepikatuko dugu.

Nola egin hazitegiak:

Eserita, biribil handi bat osatuko dugu eta erdian jarriko ditugu jarduera egiteko beharrezkoak ditugun materialak (potoak, substratua, haziak, makilak, pinturak...).

Ikusi dugu nolakoak diren landareak, baina ba al dakigu nola sortzen diren?

Lehenik, labur azalduko dugu nola. Gero, hazitegi bat egingen dugu. Horretarako, hainbat laboretako haziak ereinen ditugu nola ernalditu eta hazten diren ikusteko.

Zer da hazitegi bat?

Hazitegia toki babestua da; bertan baratzeko landareen haziak erein eta zaintzen ditugu, ernalditu ondoren behin betiko tokian landatzeko.

Zer behar dugu ereiteko?

Ontziak: lurrez beteko ditugu eta bertan ernalditu eta haziko dira gure landareak. Erabilgarri diren ontzi mota batzuk erakutsiko ditugu. Proposatutako alde aurreko jarduera egin badugu, gelan prestatu ditugun ontziak erabiliko ditugu.

Lurra: lurlean haziko dira sustraiak, eta hortik elikatuko da landarea. Biribilean eserita, eskutik eskura pasako dugu, eror ez dadin zainduz.

*Haziak: landare berria sortuko duen landarearen atala dira. Hainbat hazi elkarri pasako dizkiogu, ikusi eta ukitzeko. **Ba al dute jaten ditugun hazietako baten berri?** Adibideak: pipak, dilistak, artoa...*

Aurrez oinarria zulatutako duten jogurt-poteak banatuko ditugu, eta erdian jarri dugun lurraz beteko dituzte. Gero beren tokietara itzuliko dira.

Ereite-lana adibide baten bidez azalduko dugu: *“lurlean zulatutako bat egingen dugu, ez oso sakon, bertan 2 hazi jarri eta lurraz estaliko ditugu. Hazia azaletik hurbil jarri behar da, haren tamaina baino bi aldiz handiago ez den sakoneran”.*

Haziak banatuko ditugu, esaterako uraza, kuitatxo, babarrun eta azenarioenak, eta haur bakoitzak espezie bat aukeratuko du eta ontzian ereinen ditu haziak.

Ereindakoan, zipriztingailu batez ureztatuko ditugu. Nola egin erakutsiko diegu eta zipriztingailua ondoan dagoenari pasatuko diegu, denok hazitegia ureztatu arte.

Amaitzeko, hazitegiak identifikatuko ditugu. Horretarako, makiltxoak banatuko ditugu, bertan idatz dezaten bere izena, erein duten landarearena eta data.

Nola zainduko dituzte?, zer behar dute landareek ernatzeko?

Ura: lurra heze edukiko dugu, istildu gabe. Poliki ureztatuko dugu.

Beroa: ikasgela barruan hotzetik babestutako toki bat bilatuko dugu.

Argia: leihoaren ondoan jarriko ditugu. Argiaren bila luzatu ez daitezten, poteak argirantz biratuko ditugu.

Airea: kontuz ibiliko gara ureztatzean putzurik ez sortzeko, airerik gabe gera daitezke-eta.

Benetako 5 hosto dituztenean, lurlean birlandatu daitezke, edo ontzi handiago batean (lorontzia), bere hazkundera aztertzeko.

Itxiera: Agur esateko biribila

Zer moduz?, ongi pasatu al dute?, zer gustatu zaie gehien?

Materialak

- Begiak estaltzeko materiala (zapiak, musu-mozorroak...), pertsona bakoitzeko bat.
- Ortuariak puskatan, zer diren asma dezaten, esaterako azenario, tomate, ilar, porru eta marrubi puskak.
- Ortuariak osorik, erakusteko.
- Ontziak, ortuariak gordetzeko.
- Jogurt-ontziak zuloetxoekin.
- Substratua.
- Haziak, esaterako uraza, kuintxo, babarrun eta azenarioenak.
- Bi zipriztingailu.
- Osorik erauzitako landare bat, atal guztiak ikusteko.
- Pandereta bat.

Ikasgelan ondoren egiteko jarduera (hautazkoa)

Behaketa-lana, hazitegien garapena aztertzeko

Taldea, hazitegien jarraipena egiteko fitxa bat beteko dute. **2. eranskinean**, jarraipen-fitxa egiteko proposamena erantsi da. Azkenik, bateratze-lana egingen dugu, ditugun landareak alderatzeko.

Jarduera osagarriak

1. jarduera: Baratzeko hitz magikoak

Toki berri batean gaudenez, aire zabalean, murriztagoa izan daiteke adi egoteko eta entzuteko gaitasuna. Tresna hau erabiltzen ahal dugu, dispertsio maila altua denean eta haurren arreta erakarri edo berriz elkartu nahi ditugunean, gehiegitan erabili gabe, eragina izan dezan.

Jolas bat proposatzen da ikasleen arreta geureganatzeko.

Baratzean 3 hitz magiko ditugu: tomatea, uraza eta errefautxoak.

Hezitzaileak esaten duenean: *uraza, tomatea*,... gainontzekoek erantzunen dute: *errefautxoak!!!*

Proba bat egingen dugu (bizpahiru aldiz errepikatuko dugu).

2. jarduera: Erleen hegaldia

Leku batetik bestera bizkorrago joateko, beharrezkoa bada, "hegan" joan gaitezke, erleak bezala.

3. jarduera: Marrazki kolaboratiboa

Interesgarria izan daiteke jarduerari halako marrazki bat eginez buru ematea, landutako edukiak bermatze aldera.

- Marrazki kolaboratibo bat egingen dugu taldeka.

- Bisitatu dugun baratzea marraztuko dute: talde bakoitzak paper batean irudikatuko du baratzean ikusi eta bizi izan duguna.

Baratzeko lurzoruan topatutako elementuak ere erabil daitezke, hala nola hostoak, makilak...

Materialak

- Errotuladoreak, pinturak, tenperak...
- Guraizeak
- Lekeda
- 4 paperografo
- 4 kartoi edo antzekoak, marraztean bermatzeko.

4. jarduera: Taldekatzeko dinamika: SUSTRAIA, ZURTOINA, HOSTOAK ETA LOREA.

Jarduera bat taldeka egin behar dugunean, ikasgela banatzen ahal dugu lantegian jorratzen ari garen kontzeptuei bidea ematen dien dinamika baten bidez.

Biribilean jarrita, jolasaren berri emanen dugu:

4 talde egingen ditugu, x lagunez osatuak. Taldeak landareen ataletako bat izanen dira: SUSTRAIA, ZURTOINA, HOSTOAK edo LOREA. Lau kartel erakutsiko dizkiegu, taldeen izenekin. Atal bakoitzaren irudia osatuko dugu, adibide gisa.

Makiltxo majikoak (barazki bat izan daiteke, porru bat, esaterako) ukitzen dituenen, aipatuko dugun landarearen atal bihurtuko dira (SUSTRAIA, ZURTOINA, HOSTOAK edo LOREA). Taldeek kide kopuru berbera izan dezaten, ordenan aipatuko ditugu: sustraia, zurtoina, hostoa, lorea, sustraia, zurtoina, hostoa, lorea...).

Gorputzaz baliatuta landarearen atal hori irudikatuko dute, denak itxuraldatu arte.

Antzezpen-erronda amaituta, elkarrekin jarriko dira, sustraiak sustraiekin, zurtoinak zurtoinekin, hostoak hostoekin eta loreak loreekin, bakoitza ordezkatzeko duen kartelaren ondoan.

Azkenik, 4 talde osatuko dira: sustraiak, zurtoinak, hostoak eta loreak.

Materialak

- Kartelak, taldeen izenekin: SUSTRAIA, ZURTOINA, HOSTOA eta LOREA.

1. eranskina: Hastapeneko ipuina

- **Bizitza baratzean.** Argitaletxea: La fertilidad de la tierra.

- **Baratze ekologikoko bizitza.** Argitaletxea: La fertilidad de la tierra.

2. eranskina: Gelan hazitegien jarraipena lantzeko fitxa

Landarea ernatzea	
Zein egunetan erein nauzu?	
Zein egunetan ernatu naiz?	
Zenbat egun behar izan ditut ernatzeko?	
Landare guztiak batera ernatu gara?	
Zein ortuari ernatu da lehena? Eta azkena?	
Zaintzak	
Nola zaindu gaituzue? Zer behar izan dugu ernatzeko?	
Landareak behatu	
Nolako da landarea? Handia, txikia, altua, baxua, zein koloretakoa? Alderatu besteekin.	
Nolakoak dira hostoak? Zein koloretakoak? Berdinak dira landare guztien hostoak? Zein forma dute? (Biribila, luzexka...) Nolako testura du? (leuna, zimurra...)	
Jaio diren landareen marrazkia egin eta eman haien izena.	